



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfona. : 943-31 30 30

## **PALA TXAPELKETA MIXTOA ETA EMAKUME AFARIA /3**

### ALBISTEAK

Udazken Festa /2

Igeldoko Herri Kontseilua /2

EHko Mus Txapelketa /2

Ondazarteko bigara /3

Kixmi /4

Libre Mus Txapelketa /4

Ieltxo /4

Mendizorrotz GE /5

Txirindularitza /5

Egun seinalatuak iruditan /9-11

Sindikatura /12

## KONTU KONTARI:

RAMUNTZO URRUZMENDI ETA

IKER ZINKUNEGI IHKko KIDEAK / 6-8

## Kaixo herrikide!!!

Azken hilabeteetan, erabaki garrantzitsuak hartu dira herrian, eta herriaren inguruan: Igeldo udalerrizatea nahi genuela erabaki dugu, Diputazioak Igeldo udalerriz izen-

datzen duen Foru Dekretua atera du, Donostiako Udalak errekurtoa jarri du, Auzitegi Nagusiak kautelazko suspentsioa ezarri du... Prozesuaren inguruko azalpenak eman dizkigute

Ramuntxo Urruzmendi eta Iker Zinkunegi Herri Kontseiluko kideek. Itxas Aurreren balorazioa ere bildu dugu. Eta herriko beste hainbat kontu ere badituzue ale honetan.

# Aldaketak izango dira Udazken Festan

Hemendik aurrera, urte bakoitzean, 80 urte betetzen dituztenak omenduko dira. Aurten, hala ere, 80 urte betetzen dituztenek eta gorako guztiek jasoko dute oparia.

Udazken Festan herriko zaharrenei omenaldia egin izan zaie orain arte. Hemendik aurrera, ordea, ez dira aitona-amona zaharrenak omenduko, baizik eta urte horretan 80 urte betetzen dituztenak, hau da, generazio bat. Hala ere, aurtengoa desberdina izango da. Aurreneko urtea denez, aurten 80 urte bete dituztenei eta gorako guztiei emango zaie oparia. Bestela batzuk opari gabe gertuko lirateke.



Azken Udazken Festako irudi bat. Igandeko azoka.

## 18 panel, herrian zehar informazioa zabaltzeko

Igeldoko Mus Txapelketa ere martxan da. Aurten, bi partida gutxiago jokatuko dira. Lapa, berriz, 4 ostiraletan jokatuko da.

Herri Kontseiluak, garai batean izan ziren panel informatiboak berreskuratu ditu herriko auzune ezberdinetan zehar. Denera, 18. Itxas Aurreren laguntzarekin berreskuratu du ekimen hau. Hala azaldu du: "Igeldoko herritar gehienak Kaxkotik urruti bizi dira eta askotan bertara gutxitan hurbiltzen dira. Herritar hauek behar bezala informatzeko dira panel hauek". Herritarrei dei egiten diete erabiltzeko beraien ekimenen berri emateko.

### Mus txapelketa martxan da

Urtarrilaren 31n hasi zen Igeldoko Mus Txapelketa eta aurten berezitasun batzuk izango ditu. Betiko moduan ostiraletan

izango da 22:00etatik aurrera Itxas Aurren. Bikote bakoitzak 14 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko eta sariak hauek izango dira: Lehendabiziko bikotearentzat 2 arkume, bigarrenarentzat arkume bat, hirugarrenarentzat lau txuleta eta laugarrenarentzat baserriko bi oilasko.

Aurtengo berezitasunak hauek dira: denera 15 partida jokatu beharrean, 13 jokatuko dira, eta Lapa azken 3 ostiraletan jokatu beharrean, azken 4tan jokatuko da. Horrez gain, hilabetezko azken ostiraletan sari bereziak eta zozketak izango dira, egunean bertan jakingo da zer sari edo zozketa izango diren. Lapa apirilak 4, 11, 25 eta maiatzak 2an jokatuko da.

## Igeldoko bi bikote, EH Mus Txapelketako finalean

Urtero bezala, Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatu zen Igeldon. Urtarrilaren 17an jokatu zen eta 16 bikotek hartu zuten parte. Bertan, Kandido Arrillaga eta Antonio Zendoia izan ziren irabazleak eta Ander Zubeldia eta Jon Lizarazu bigarrenak. Otsailaren 15ean Gipuzkoako kanporaketa jokatu zuten Kandido Arrillaga-Juantxo Eskudero, eta Ander Zubeldia-Iñaki Irazustak. Bi bikoteak finalera sailkatu ziren. Larunbatean jokatuko da finala, Heletan.

# Pala Txapelketa mixtoa eta Emakume Afaria, Aste Morearen barruan

Pala Txapelketan 8 bikote ari dira parte hartzen. Martxoaren 9an, igandean jokatuko da finala. Emakume Afaria Emakume Baserritarrek antolatu dute. Aurretik, tertulia.

Emakume egunaren inguruan egitarautxo bat osatu du Igeldoko Gaztiak taldeak. Aste Morea izena jarri diote, azken urteetan bezala, eta besteak beste, Pala Txapelketa mixtoa antolatu dute. Denera 8 bikote ari dira parte hartzen. Apxi-Ales; Amaia-Kalan; Larritz-Iñaki; Nerea L.-Porlan; Ainhoa G-Iker; Gurutze-Igor; Txube-Maialen; Aratz-Ainhoa E. Finalak, martxoaren 9an, igandean, jokatuko dira arratsaldean. Bestalde, martxoak 8an, Donostian izango den manifestaziora jaisteko deialdia egin dute.

Ondoren, Emakume Afaria izango da Buena Vista jatetxean, Emakume Baserritarrek antolatuta. Eta aurretik, tertuliatxo bat egingo dute, honako gaiaren inguruan: *Nola hobetu zure osasuna*.

## Urtean zehar ekintza desberdinak, gazteen eskutik

Igeldoko Gaztiak, aurten zer egin nahiko luketen azaltzeko aukera izan zuten urte hasieran. Bertan proposamen ezberdinak bildu zituzten eta horiek lantzeko asmoa dute urtean

zehar. Epe motzean, photoshop ikastaroa egiteko datak aztertzen ari dira. Bestalde, 2 hilabetetik behin, Ernaiko aldizkaria Txapelan utziko dute irakurri nahi duenarentzat.

### ASTE MOREA

**Astean zehar**, Pala Txapelketa mixtoko partiduetan.

#### Martxoak 8

Manifestazioa Donostian

**20:15**, tertulia Buena Vistan.

Gaia: Nola hobetu zure osasuna.

**21:30**, afaria Buena Vistan.

#### Martxoak 9

18:00, Pala Txapelketako finalak.

# Ondazarteko bigara bigarren, Italiako lehiaketa batean

Ondazarte baserriko Eneko Dorronsoro, Italiako Verona herriko Fiera Agricolan izan zen otsaileko aurreneko astean, bigara batekin.. Feria honetan, Europako beste herrialdeetako ganaduzaleek parte hartzeko aukera izaten dute, Esnetako Europako Lehiaketa izaten baita.

Behi arraza ezberdinen lehiaketa izaten da bertan eta Ondazarteko Hasania izeneko bigarak 13. Europako Holstain arrazako lehiaketan hartu zuen parte, hau da, fri-siar arrazan. Bere adin taldean, 9-12 hilabetekoen artean, bigarren postua lortu zuen eta oso gustora daude Ondazarteko kideak. Esperientzia bikaina izan dela adierazi dio Orri Informatiboari Eneko Dorronsorok. “Europako beste herrialdeetako ganaduzaleekin lehiatzea gauza



Lehiaketa ostean ateratako argazki ofiziala.

handia da”.

Hala ere, Veronakoa ez da izan Hasaniak lortu duen aurreneko saria; 2013ko abenduan,

Gordexolako lehiaketan lehenengo postua lortu zuen bere adinekoen atalean. Baita bertan parte hartu zuten bigara guztien artean ere.



# Irteera prestatzen ari dira Kixmikoak

Apirilaren 5 eta 6an izango da irteera eta Zarautzeko aterpetxera joango dira.

Gabon eskeko jardunaren ostean, urtero egin ohi duten asteburuko irteera prestatzen ari dira Kixmiko hezitzaileak. Apirilaren lehendabiziko asteburuan izango da, apirilak 5 eta 6, eta Zarautzeko aterpetxera joango dira.

## Gabonetako ekintzak, arrakastatsuak

Bitarte honetan ere, ekintza ugari antolatu ditu Kixmik. Urtarrilaren

31n eta otsailaren 1ean hileroko Ludoteka eta Haur Txoko tailerrak izan zituzten.

Gabonetan antolatutako ekintzetan berriz, erantzun ona izan dela baloratu dute Kixmikoek, arrakastatsuak izan direla. Gabon eskeko entsaioak Abenduaren 14 eta 22an izan ziren, bigarren entsaioaren ostean gabonetako tailerra izan zen, txikienek apaingarriak egin zituzten eta handienek gabo-

netako abestien liburuxka bana.

Abenduaren 24an, gabon eskearen ondoren, Olentzeroren bixita jaso zuten. Urtarrilaren 2an, gabonetako pelikula izan zuten, meriendatxo txiki batez lagunduta. Eta Urtarrilaren 10an, gabon eskean ateratako 15 urtetik gorakoek, afaria egin zuten Nikolas tabernan, afalosteko trikiti eta pandero doinuez alaituta, giro ederrean.



## Igeldoarrak nagusi, Libre Mus Txapelketan

Espainiako Audientzia Nazionalen bi sumario epaitzen hasi zirela 4 hilabete pasa dira. Bi epaiketa hauetan, 80 herritar kartzelaratzeko eta 110 elkarte ixteko arriskuan aurkitzen dira. Auzipetu horien artean, Maialen Eldua igeldoarra dago eta epaiketa hauen helburua jarduera politikoa zigortu eta oztopatzea dela behin eta berriz adierazi dute auzipetuek. Epaiketa hauen gastuei aurre egiteko, (47.000€ donostiar auzipetuena) zenbait ekimen egin dira. Besteak beste, Donostialdean, Libre Mus Txapelketa. Igeldon kanporaketa bat jokatu zen eta bertako irabazleak Donostian jokatu zen finalera pasa ziren. Finaleko irabazleak, Julen Areizaga eta Joxean Balerdi igeldoarrak izan ziren.

## Ikastaro ugari, Ieltxoren eskutik

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Zine-Janaz gozatzeko aukera izango dute heldu zein haurrek datozen hilabeteetan. Helduentzako, hurrengo, martxoaren 23an izango da eta haurrentzako martxoaren 21ean edo 22an, arratsaldean.

Bestalde zenbait ikastaro ere antolatu dituzte.

- Auto Makillaje ikastaroa helduentzako. Martxoaren 6tik Apirilaren 10era (6 saiotan), ostegunetik 19:00etatik 20:00etara.
- Dantza ikastaroa helduentzako. Martxoaren 4an hasita Ekaina bitartean asteartetan izango da 19:30etatik 20:30etara.
- Pala entrenamenduak emakumeentzako. Martxotik Ekainera bitartean asteazkenetan 19:00etatik 21:00ak arte.
- Patin-Roller ikastaroa haurrentzat. Maiatzaren 10ean izango da arratsaldean.
- Argazki ikastaroa helduentzako. Oraindik zehaztu gabe dago noiz izango den.
- Ekainean kurso amaierako jaialdia ere izango da. Data aurrerago zehaztuko dute.

# Guraso elkarteak lan eta lan dabil: futbol txapelketa, aldizkaria, irteerak...

Mendizorrotz Guraso Elkarteak bere ekimeneren berri eman dio Orri Informatiboari.

Herri eta auzo txikien arteko futbol txapelketa batean parte hartzen ari dira Igeldoko eskolako haurrak. 12 urtetik beherako neska-mutilek jokatzen dute eta MENDIZORROTZ Guraso Elkarteak kamiseta berde politik erosi ditu taldearentzat. Entrenatzaile lanean Iker Dorronsoro eta Harkaitz Etxebeste ari dira eta guraso elkarteak eskerrak eman nahi dizkie bi herrikide hauei egindako lan apartagatik.

Igandean izaten dira partiduak, bi igandetik behin Igeldon eta gainerakoetan Gipuzkoako herri txikiak bisitatzeko aukera izaten dute haur zein gurasoek. Igeldon jokatzen direnean, kan-

txan izaten dira partiduak, baita euria egiten badu ere, frontoia bustia dagoenean arriskutsua dela iritziz baitiote gurasoek. Hala ere, eguraldi txarra izanagatik giro beroa izan ohi dute, bai futboleko jokatzen dutenek zein ikusleek ere, salda bero-beroa banatzen baitute ikusleen artean.

## Gai-porrusalda, eskolan

● PATATA aldizkari zientifikodibulgaritza kaleratu zuen Herri Ikastetxeak, irakasleen, langileen, gurasoen eta, bereziki, ikasleen artikuluek josita. Ura eta Lurra gaia lantzen ari dira, eta horiei buruz irakurri dezakezue, PATATA aldizkari ale digitalean, <http://igeldoeskola.blogspot.com.es>

● Abenduaren 20an festa egin zuten eskolan, Gabonetako oporren aurreko azkeneko eguna aitxakia hartuta. Txistorra, trikitixa, baserritar jantziak eta kalejira herritik zehar, giro bikainean.

● Urtarrilaren 17an, arratsaldean, danborrak astindu ondoren, txokolate beroa eta bizkotxoa jan zituzten umeez. Jarraian, ohikoa bilakatzen ari den guraso-haur futbol partida ikusgarria izan zen...

● Lehengo urtean gurasoek eskolarako grabatu zuten bideoa Gaztea Parody lehiaketara aurkeztu zuten, baina ez zuten saririk irabazi.

● Urtarrilean mendi irteera egin zuten eta Gorriti aldera joan ziren, orbelarekin jolastera. Kurtso amaierarako ere beste mendi-irteera bat antolatzen ari dira gurasoak. Maiatzak 31 eta Ekainak 1eko asteburuan izango da eta Artikutzara joango dira. Hala ere, tartean egingo dute beste irteeraren bat ere.

Guraso elkartearekin harremanetan jarri nahi izanez gero, helbide elektronikoa badute. Honakoa da: [mendizorrotz@eskolatxikiak.org](mailto:mendizorrotz@eskolatxikiak.org)



Onditz Urruzmendi, ezkerretik hasita laugarrena.

## Onditz Urruzmendi Gipuzkoako txapelkun, eta Portugalen ere bai, Puntuazio proban

Otsaileko aurreneko asteburuan Pista-Txirindularitzako Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen eta Onditz Urruzmendi igeldoarrak irabazi zuen, junior mailan. Otsaileko bigarren asteburuan berriz, Portugalen Kopa jokatu zuen, Gipuzkoako selekzioarekin, eta Puntuazio proban aurreneko postuan geratu zen. Scratch proban, berriz, hirugarren. Lortutako emaitzekin gustora dago txirindulari igeldoarra eta pistako denboraldia bukatuta, orain, errepideko denboraldiari begira dago. Hilabete honetan hasi da.



Iker Zinkunegi Igeldoko Herri Kontseiluko kidea eta Ramuntxo Urruzmendi presidentea.

## “Udalerrri gara, nahiz eta suspentsioan egon, eta lanean jarraitu behar dugu”

Igeldo 89. udalerrria izendatu zuen Gipuzkoako Diputazioak abenduaren 18an, Foru Dekretu baten bidez. Erabaki hori hartu aurretik, parte hartze prozesu bat eta herri galdeketa bat egin ditu, besteak beste. Eta prozesu horretan, IHKren laguntza izan du. Igeldoren desanexioaren bidea ez da oraindik bukatu, ordea. Errekurtsoak tarteko, suspentsioan dago udalerrria.

Prozesuaz eta egoeraz hitz egiteko IHKko kideekin elkartu gara.

**Nola baloratzen duzue parte hartze prozesua? Diputazioarekin elkarlana, herritarren erantzuna, Donostiako Udaleko alderdien jarrera...**

Diputazioarekin izan dugun hartu-eman oso ona izan da. Oso jarrera ona azaldu dute prozesu osoan. Prozesuak agian bere hutsuneak izango zituen, baina seriotasunez eta ondo egin da. Iritzi guztiak bilduz, deialdi zabalak eginez eta etxe guztietara informazioa bidaliz. Alde horretatik, Herri Kontseilua lasai dago. Donostiako Udaleko alderdiekin ere elkarlanean aritzeko bidea jarri genuen eta oposizioko alderdiek ez dute guregana gerturatu nahi izan. Beraiek beste bide

bat hartu dute. Mezu guztiak medioen bidez zabaldu dituzte gurekin hitz egin beharrean. 20 urte hauetan egin dutena ikusi dugu berriz: gutaz, Igeldotaz hitz egiten dute, baina gurekin inoiz ez.

Okerrena da, jende askok prentsan irakurtzen duena sinesten duela eta horregatik, herritarrak bileretara etortzea nahi genuen, informazio zuzena jasotzeko. Alde horretatik, nik behintzat (Ramuntxo), parte hartze prozesuko bileretara herritar gehiago etorriko zela pentsatzen nuen, gaiaren garrantzia ikusita. Ondorenean, galdeketa emaitzekin ikusi da jendeak aurretik erabakia hartua zuela eta horregatik ez

zela bileretara etorri. Bileratik bilerara ere alde egon zen, tabernarien bileran eta Ameztiakoan (erderazkoan) jende gehiago azaldu zen. Kasu horietan, alde ez zegoen jende asko ere azaldu zen eta argi ikusten ez zutenak ere bai. Jendeak bere kezka azaltzeko balio izan zuen.

### **Azkenean, galdeketa eguna iritsi zen eta egin ere bai. Nola baloratzen duzue?**

Bileretako parte hartzea ikusita ematen zuen jendea ez zela etorriko bozkatzera. Baina, esan bezala, argi geratu zen aurretik erabakita zutela gehienek. Parte hartzean ere, lagundu zuela iruditzen zaigu azken egunetan prentsan ia egunero egoteak eta Urkijok egindako eskaerak, galdeketa bertan behera uzteko ez zela legala esanez.

Oso emaitza interesgarriak atera ziren. Alde ez zegoen jendeak ere parte hartu zuen eta horrek indar handia eman zion galdeketari. Parte hartze handia izan zen eta mota guztietako herritarrek hartu zuten parte. Ordura arte ikusitakoarekin, nik (Ramuntxo) ez nuen hainbesteko parte hartzea espero. Galdeketaren zilegitasuna dudan jarri zen eta hori jendeak ez zuen ondo ikusi, nahiz eta Igeldo udalerriz izatearen alde ez egon.

### **Nola bizitu zenuten eguna?**

Eguna oso normal joan zen; mugimendu handiarekin herrian, baina lasai. Goizean goizetik etorri zen jendea bozkatzera. Iluntzean, plaza bete egin zen, ikusmin handia zegoen. 19:45ak iristearekin, ordea, jendea nerbioz jartzen hasi zen eta baita ni ere (Ramuntxo). Momentu garrantzitsua zen, hainbeste urte eta gero, herritarrek erabaki zuten zer nahi zuten.

### **Eta behin emaitzak jakitean?**

Negarrez zegoen jendea eta batez ere, adinekoak ziren. Gazteak ere bai, baina gehienak adinekoak. Lehertzeko momentua izan zen herritarrentzat.

### **Herritarrek Igeldo udalerriz izatea erabaki ostean, izendatzea besterik ez zen geratzen. Momentu hartan espero zenuten azkenean Igeldo udalerriz izendatzea?**

Diputazioak argi utzi zuen parte hartze prozesua eta galdeketa kontuan izango zituela, eta baita Igeldori buruzko txostenak ere. Galdeketako emaitza eta txostenak aldekoak ziren, eta baldintza legal guztiak betetzen genituen. Ikusten zen etorriko zela, baina agian hain azkar ez. Herritar askok sorpresa hartu zuten.



**Ramuntxo Urruzmendi galdeketako egunean.**

### **Dena dela, ez zen agian hainbesteko ospakizunik izan...**

Esan liteke gehiago bizitu zela galdeketaren eguna. Izan ere, atzetik, Donostiako Udaleko oposizioaren errekurtsioa etorri zitekeela bazekiten herritarrek eta horrek ere eragin zuen pixka bat ospakizuna lasaiagoa izatea. Jendeak benetan ospatzeko behar du jakin, Donostiak ezin duela ezer egin Igeldoren erabakiaren aurrean. Hala ere, ospatzekoa bazen Diputazioaren erabakia eta herritarrek halaxe atera ziren kalera. Honaino iritsi gara. Pauso txikiak ospatu behar dira; ez da txarrena pentsatu behar. Diputazioak kontuan hartu du herriak erabakitakoa eta hori oso garrantzitsua da. Herritarrek ikusten dute ez dela alferrik izan egindako lana.

### **Babesa ere jaso du Igeldok: erabakitzeko eskubi-dearen alde manifiESTazio jendetsua egin zen, beste herrietako Udal ordezkariak ongi-etorria egin zioten Igeldo udalerrizari...**

Bi ekimenetan jasotako babesa sekulakoa izan zen. Udalerrien kasuan, gainera, udal ordezkari asko etorri ziren, nahiz eta denbora juxtuarekin egin deialdia. Beste herrien aurrean onartua izatea garrantzitsua izan zen. Bertan ikusi zen herri txikiak argi dutela funtzionatu dezakegula eta Gipuzkoari ez diola ezer kentzen, gehitu baizik. Aurrera egiteko animoak eman zizkiguten.

### **Donostiako Udalak sartutako errekurtsioa epaitegietan dago. Baina bitartean udalerriz izaten jarraitzen dugu eta herriaren ordezkari izango den gestora osatzea zen hurrengo pausoa. EAEko**

## **Justizia Auzitegi Nagusiak (TSJPV) ordea, suspentsio kautelarra aplikatzea onartu du. Nola dago egoera?**

Esan duzun bezala, Gestora osatzekotan ginen eta bertako kideek ordezkaturako zuten herria, 2015ko udal hauteskundeak egin bitartean. Gestora hori 9 kidez osatua egongo zen. Berez, 7 ordezkari Bildukoak, 1 EAJ-PNVkoa eta beste 1 PPkoa. Alde horretatik, Itxas Aurrek eta Igeldoko Herri Kontseiluak eskatu genuen, Herri Kontseiluari zilegitasuna aitortzeko eta gestora osatzerakoan kontuan hartzeko, Herri Kontseilurako egindako hauteskundeetako emaitzak. Behin Gestora osatuta, hasiko litzateke Igeldoko Udala martxan: Donostiarekin harremanetan diru kontuak lantzeko, konpetentzien traspasoa egiteko... Gestora hori sortzear zela, ordea, Auzitegi Nagusiak (TSJPV) Igeldo udalerrri izendatzen duen dekretua suspentsioan utzi du. Beraz, orain, Igeldo udalerrria da, baina suspentsioan dago. Foru Dekretu hori egokia den edo ez erabaki bitartean, epai firmea egon bitartean, kautelazko suspentsioan gaude.

### **Eta horren aurrean zer?**

Argi utzi behar da, udalerrri bagarela nahiz eta suspentsioan egon, eta lanean jarraitu behar dugula. Galdeketa argi ikusi da udalerrri izan nahi duela herri honek eta bide horretan jarraitu behar dugu. Errekurtsoak ere jarri dituzte Diputazioak eta Itxas Aurrek eta prozesu hau ez da bukatu. Orain, lan batzordeak osatuko dira eta herritarrei dei egiten diegu parte hartzeko.

## **Suspentsioaren inguruko Herri Batzarra**

Igeldo udalerrri izendatzen duen Foru Dekretuari kautelazko suspentsioa ezartzea erabaki zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (TSJPV) otsailaren 12an. Horren aurrean, Herri Batzarra egin zuten otsailaren 18an Herri Kontseiluak eta Itxas Aurrek. Bertan azaldu zuten, Diputazioak eta Itxas Aurrek errekurtsoa jarri dutela, kautelazko suspentsio horren aurrean. Onartzen ez bada, Madrilera joko dute, Supremora. Suspentsioa bertan behera geratuko balitz, Gestora osatuko litzateke eta Igeldoko Udala martxan jarriko litzateke. Bestela, azkeneko epaia eman arte, ezingo da Udal berria sortu. Bitartean, herritarrek egin beharreko gestio guztiak Donostiako Udalaren bitartez egin beharko dituzte, orain arte bezala.

Suspentsioa ematerako garaian, epailea ez dela arrazoi sendoetan oinarritu azaldu zuten. Epaileak baloratzen du, Donostiako Udalaren antolaketari arazoak sortuko zaizkiola eta Igeldok itxaron dezakeela Dekretuaren inguruko epaia iritsi arte.

Igeldo udalerrri dela dioen Foru Dekretua bertan behera uzten den edo ez, hori erabakitzea, hemendik urte edo bi urteko tartean izango dela kalkulatzeko dute.

Herri Kontseiluak eta Itxas Aurrek epealdi hau baliatu nahi dute desanexio prozesu normalizatuago bat prestatzeko. Horretarako, Donostiako Udalean ordezkaritza duten alderdi guztiak hitz egiteko prest agertu dira. Ikusten dute epealdi hau aukera ona dela prozesua eta eskumenen traspasoa hobeto prestatzeko. Bide horretan, lan taldeak osatzeko asmoa dute.

## **Itxas Aurre elkartearen balorazioa**

Hogei urte luze pasa ondoren, lortu dugu Igeldo udalerrri izendatzea eta alde horretatik herritar guztiok zoriontzeko arrazoi ugari ditugu.

Kontsultan garbi azaldu zen bezala, hori zen gehiengo nabarmen batek aukeratu zuena eta Foru Aldundiak herriaren nahia bete egin zuen.

Herria gara, lehen ere baginen, baina udalerrri bezala lehen pausoak emateko, eta legeak hala agintzen duenez, Gestora bat osatu behar da hemendik hurrengo udal-hauteskunde bitartean udalbatza osatzeko.

Alderdi politikoek hautatu behar dituzte, aurreneko Udalbatzako partaideak, 2011ko hautes-

kundeen emaitzen arabera.

Itxas Aurretik proposamena zabaldu diegu aipaturako alderdiei, Igeldoko esparruan beste hautaketarik eman ez denez, Herri Kontseilurako egindako hauteskundeak kontuan izan ditzatela, bertako jendea aukeratzeko. Dagoeneko, Gestora horrek osatuta egon behar zuen...

Lanak ugariak dira, baina ez gaindiezinak. Igeldok erakutsi du urteetan zehar bere burua antolatzeko ohitura eta grina. Hemendik aurrera berdin izango da baina gure baliabide guztiak eskuetan ditugula eta horrek ez digu inolako beldurrik eman behar.

Nola ez, bide hori jorratzerakoan kontuan izan "betikoak" atzetik ditugula eta ahal dituzten oztopo handienak jarriko dizkigutela.

Esan daikete Udalerrria izendatzearekin, Itxas Aurrek promotora gisa bere lana bete duela. Hala ere prozedura juridikoak jarraitzen duen bitartean, bere egitura eta lana beharrezkoa izango da.

Horrek esan nahi du, guk, alderdi politikoak eta Donostiako Udalak ez bezala, prozesu guzti honek eragindako gastu ekonomikoak aurre egiteko orain arte bezala herritar guztion laguntzarekin jarraitu behar dugula.

Bukatzeko, gogorarazi Itxas Aurreko urteko zozketan parte hartu nahi izanez gero, oraindik txartelak eskuragarri daudela. Animatu!

Lehen hogei urte egin ditugu. Orain beste urte pare bat....., hori ez da ezer. AURRERA!




# Egun seinalatuak, iruditan

Diputazioak Igeldoren desanexio prozesuari bide eman zionetik gaur arte izandako egun esanguratsuenak bildu ditugu datozen orrietako argazkietan: galdeketa eguna, Igeldo 89. udalerrri izendatu zuten eguna, ManiFESTAzioa, Gipuzkoako udal ordezkariak Igeldori egindako ongi-etorria, Igeldori buruzko Pleno monografikoa eta Donostiako Udaleko oposizioaren errekurtsua...



**AZAROAK 10-** Herri galdeketa: 'Igeldo udalerrria izatea nahi duzu?' %72,1ak hartu zuen parte eta horietatik %61,4ak baiezkoa bozkatu zuen.



**ABENDUAK 17** - Martin Garitano Aldun Nagusiak iragarri zuen Igeldo 89. udalerrria izango zela hurrengo egunetik aurrera. Igeldoarrak ospatzera atera ziren arratsaldean. Trikitixarekin girotu zuten herria, besteak beste.





**ABENDUAK 17 - Plazan herritar ugari elkartu zen Igeldo udalerrri izendatzeko erabakia ospatzera. Topa ere egin zuten denek batera.**






**ABENDUAK 21** - ManiFESTAZioa egin zen Donostian, erabakitze eskubidearen alde. Donostiako Udaleko oposizio alderdiek errekurtsioa jarriko zutela iragarria zuten Diputazioaren Foru Dekretua bertan behera uzteko eskatuz, Igeldoren udalerrri izaera bertan behera utziz. Horren aurrean, igeldoar, donostiar eta gipuzkoar ugari atera zen kalera herritarren borondatea errespetatu zedin eskatzera.



**ABENDUAK 22** - Gipuzkoako Aldun Nagusia eta Gipuzkoako udalerrri ugaritako alkate eta zinegotziak Igeldon izan ziren. Ongi-etorria eman zioten udalerrri berriari.

**ABENDUAK 27** - Igeldori buruzko Pleno monografikoa egin zen Donostiako Udalean. Aurreikusitako bezala, Igeldo udalerrri izendatzen zuten Foru Dekretuaren aurka errekurtsioa jartzea onartu zen oposizioaren aldeko botoekin (PSE-EE, EAJ-PNV eta PP) eta Bilduren aurkako botoekin. Igeldoar ugari bertan izan ziren erabakitze eskubidea aldarrikatuz. Ramuntxo Urruzmendi IHKko presidentea hitza hartzen ahalegindu zen, baina ez zioten utzi.

**OTSAILAK 12** - Igeldo udalerritari kaute-lazko suspentsioa jarri zion EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak (TSJPV). Foru Dekretua bertan behera utzi edo ez erabaki bitartean, Igeldo suspentsioan egoitea dela onena erabaki du epaileak. Diputazioak eta Itxas Aurrek errekurtsioa jarri dute honen aurrean.



# Sindikatura martxan jartzeko ahaleginetan dabilta Kooperatibako kideak

Aurreneko pausoa eman dute: teilatua berritzea. Orain hurrengo pausok aztertzen ari dira Herri Kontseiluarekin elkarlanean. Helburua da, herriko nekazariei zerbitzuak eskaintzea eta herritar guztiei begirako proiektu bat egitea.

Sindikatura martxan jartzeko, teilatua konpontzea behar beharrezko kontua zen eta behin hori eginda, hurrengo pausok aztertzen ari dira Igeldoko Nekazal Kooperatibako kideak. Beraien helburua da, sindikatuaren bidez herriko nekazariei zerbitzuak eskaintzea eta baita herritar guztiei begirako proiektu bat egitea ere.

## 2003tik geldituta

Sindikatuaren funtzioa honakoa izan zen, azken urteetan: pensu eta forrajeak, haziak, intsektizidak eta nekazaritzako tresneria eskuratzen laguntzea, Igeldoko baseritarrei. Ondorioz, eraikina bilketa eta salmenta puntu zen. Horrez gain, erabilera gehiago ere izan zituen. Igeldoarren aisialdi edota ekitaldi kulturalak antolatzen ziren bertan: zine saioak, dantza entsaioak, antzerki taldea... Garai hartan herritarrek eskura zuten eraikin bakarra zen eta zentro sozial funtzioa ere betetzen zuen. 2003 urtean, ordea, Kooperatibaren jarduera gelditu egin zen, azken urteetako eboluzio kaxkarra ikusita, bai salmenta eta bai baserri munduan egon ziren aldaketak medio.

Gerora, eraikinaren zesioa egin zitzaion Herri Kontseiluari, bi urterako. Herri Kontseiluak, Donostiako Udalean aurreproiektu bat aurkeztu zuen, eraikina berriro ere martxan jartzeko finantziazio bila. Udalak ez zuen inolako interesik azaldu eta baztertu egin zuen.

## Martxan jarri behar zela erabaki

2011ko azaroaren 27an, Batzar Nagusia egin zuten bazkideek eta Kooperatiba berri martxan jarri behar zela erabaki zuten. Horretarako, eraikina konpondu behar



Sindikatura, teilatuta berriarekin.

zela ikusi zen eta bideragarritasun ekonomikoari begira, hausnarketa bat egin.

Proiektua aurrera eramateko, Herri Kontseiluarekin harremanetan jarri dira eta Herri Kontseilua prest azaldu da Kooperatibarekin batera lanean aritzeko. Behar diren azterketak egiten ari dira, ekonomikoki bideragarria izango den proiektu bat sortzeko, jardueraren dibertsifikazioa oinarritzat hartuta. Hori bai, lehen eskaintzen ziren zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko asmoa badute Kooperatibako kideek, hau baita herrian dagoen erakunde bakarra, nekazaritza eta abeltzaintzatik datozen produktuak eta zerbitzuak igeldoarreni zabaltzeko.

## Bazkide bakoitzak, 300 euro

Kooperatibako kideen egoera ere erregu-

larizatu dute eta horrez gain, herritar guztiei ireki zaie aukera bazkide egiteko. 30 bazkide inguru bildu dira momentuz. Aurrera begira, beti egongo da aukera gehiago sartzeko.

Esan bezala, proiektu honen aurreneko pausoa eman dute: teilatua berritzea (iazko azarotik abendura egin zuten). Pauso honek, eraikina erabat kontsolidatu du, Kooperatibako kideen ustetan. Teilatua berritzeko, hiru bidetatik jaso dute diru laguntza: Behemendi Landa Garapenerako Elkartetik; Herri Kontseilutik; eta Kooperatibako bazkideen aportaziotik. Bazkide bakoitzak 300 euroko ekarpena egin du. Hala ere, diru ekarpen hauekin ez dute aurrekontu osoa ordaintzea lortu eta aztertzen ari dira nondik lortu falta den diru kopuru hori.



**Igeldoko  
Herri  
Kontseilua**

Laguntzailea:



**Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián**